Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abuztuaren 4a, asteartea — 146 — Martes, a 4 de agosto de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

*Andoaingo herrian gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren behin-betiko onespena.*

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2020ko maiatzaren 28ako batzarraldian, hasierako izaeraz Andoaingo herrian gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza onartzeari buruzko erabakia hartu zuen.

Aipatu ordenantza argipideketa publikora eta interesatuen entzunera jarri zen, 30 egunez, eta horren aurrean erreklamaziorik ez eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin-betikoz onartutzat geratzen da plenoko akordioan ezarritakoaren arabera, eta hori berori jendaurrera jakitera ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatuaren indarrez, Ordenantzaren behin-betiko testua, iragarki honi jarraian datorkiona izanik.

Interesatuek bide administratiboan behin betikoa den erabaki honen aurka jo dezakete, Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan administrazioarekiko auzi-helegitea jarriz bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Andoain, 2020ko uztailaren 21a.—Maider Lainez Lazcoz, alkatea. (3699)

### ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen xedea da Andoaingo Udalerrian etxebizitza errentapetu ahal izateko laguntzak ematea arautuko duten oinarriak onartzea, lehiaketa araubidez errentapetu beharrekoak eta Andoaingo Udalak Dirulaguntzak arautzeko duen Ordenantza Orokorrak xedaturikoa betez.

Azken helburutzat ondokoak dauzka:

— Bereziki gazteei laguntza ematea emanzipatze ahaleginean.

— Izaera orokorrarekin sustatzea Andoaingo Udalerrian errentapetze araubidean etxebizitza eskuratu ahal izatea.

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko Azken Xedapenetako Laugarrenak xedatuaren babesean onartzen da, bere gain hartuz, udalei aitortzen zaizkien eskuduntzen esparruan, errentapetzeko etxebizitza eskaintza sustatzeko politikak bultzatzeko konpromisoa, bereziki zuzendurik etxebizitza eskuratzeko arazoak dituzten gizatalde jakin batzuei.

Aintzat izan da ere Euskadiko Toki Erakundeetako apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17. artikuluko 36. atala, zeinak udalen berariazko eskuduntzat ezartzen baitu gaztediari zuzenduriko politiken planifikazio, antolakuntza eta Kudeaketa.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

*Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de las bases que establecen la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes en el municipio de Andoain.*

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 28 de mayo de 2020 aprobó con carácter inicial la Ordenanza reguladora de las bases que establecen la concesión de ayudas para el alquiler de vivienda para jóvenes en el municipio de Andoain.

Como quiera que durante el trámite de información pública, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, de conformidad con lo previsto en el referido acuerdo plenario, la ordenanza queda aprobada definitivamente, lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la ordenanza el que se inserta a continuación.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Andoain, a 21 de julio de 2020.—La alcaldesa, Maider Lainez Lazcoz. (3699)

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente ordenanza tiene por objeto la aprobación de las bases que regularán el otorgamiento de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Andoain, en régimen de concurrencia competitiva y en ejecución de lo dispuesto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Andoain.

Tiene por finalidad última:

— Apoyar especialmente a las personas jóvenes, en su proceso de emancipación.

— Promover con carácter general el acceso a una vivienda en régimen de alquiler en el municipio de Andoain.

Se establece al amparo de la Disposición Final Cuarta de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, asumiendo el compromiso de impulsar, en el marco de las competencias reconocidas a los municipios, políticas de fomento de la oferta de vivienda en alquiler, especialmente de determinados colectivos sociales que ven dificultado su acceso a la vivienda.

Se tiene en cuenta también el apartado 36 del artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en tanto que se establece como competencia propia de los ayuntamientos la planificación, ordenación y gestión de políticas de juventud.

EK\CV GAO-I-2020-03699

I. XEDEA

*1. artikulua. Xedea.*

Laguntza hauen helburua da gazte eskatzaileen ohiko bizilekurako etxebizitzaren errenta zati batean ordaintzen laguntzea, baldin eta etxebizitza hori errentapeturik baldin badute edo hura kontratatzeko konpromisoa hartzen badute dagokion deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean. lagun edo pertsona gaztetzat 18 eta 30 urte bitartekoa hartzen da, eta etxebezitza Andoaingo udalerriaren barruan errentapetu beharko da.

Etxebizitza bat partekatzen duten gazteak izan daitezke onuradun, baldin eta errentapetze-kontratua etxebizitza partekatzen duen pertsona bakoitzarekin sinatzen baldin bada. Halakoetan, eskatzaile bakoitza bizikidetza-unitate independentetzat hartuko da, eta errenta (alokairua) kontratuaren sinatzaile bakoitzaren artean hainbanatuta zenbatuko da. Ezingo da etxebizitza partekatutzat jo eskatzaileak familia-harremanaren (bigarren mailara arte) edo harreman afektiboaren bidez lotuta baldin badaude. Azpierrentamenduen kasuan, kontratuak berariaz jaso beharko du etxebizitzaren titularraren adostasuna, bai eta azpierrentatzailearen datuak ere.

Dirulaguntza oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera izapidetu eta emango da, eta onuradunari egotz dakiokeen errenta edo alokairua gutxienez hamabi hilabetez ordaintzeko izango da, betiere baldintza horiek epe horretan mantentzen baldin badira.

Araudi honetan xedatutakoaren ondorioetarako, errentaren edo diruz lagun daitekeen zenbatekoaren kontzeptutik kanpo geratzen dira garajeei eta komunitateko eta administrazioko gastuei dagozkienak, bai eta kontribuzio eta ariel gisa gertatzen direnak ere, nahiz eta kontratuan berariaz jasota egon.

Udal-laguntza hauek eskatzen dituztenek ezingo dituzte eskuratu, baldin eta antzeko laguntza jasotzen badute beste erakunde batzuengandik, errentarako-laguntza gisa. Beraz, laguntza hauek berariaz bateraezinak dira helburu bererako beste laguntza batzuekin.

*2. artikulua. Organo eskuduna.*

Laguntzak ebazteko eskumena duen organoa Alkatetza da, eta eskumen hori tokiko gobernu-batzarrari eskuordetu ahal izango dio, aplikatu beharreko legeriak ezartzen duen moduan.

*3. artikulua. Araudi ezargarria.*

Laguntza hauek emateko eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa arautzeko, oinarri hauek eta laguntza ematen den unean indarrean dauden gainerako arauak bete beharko dira.

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dute dirulaguntza:

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

— Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

— Andoaingo Udalaren dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra.

— Andoango Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa.

*4. artikulua. Onuradunak.*

Oinarri hauetan arautulako laguntzen onuradun izan daitezke deialdiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean eta diruz lagun daitekeen aldian honako baldintza zehatz hauek betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetza-unitateak:

I. OBJETO

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de las presentes ayudas es el de contribuir parcialmente al pago del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de las personas jóvenes solicitantes, que ya dispongan en arrendamiento de dicha vivienda, o se comprometan a contratarlo en el plazo de un mes tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes de la correspondiente convocatoria. Se entiende por persona joven aquella de una edad comprendida entre 18 y 30 años y el arrendamiento deberá producirse en el término municipal de Andoain.

Podrán ser beneficiarias aquellas personas jóvenes que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con cada una de las personas que comparten la vivienda. En tal supuesto, será considerada cada una de las personas solicitantes como una unidad convivencial independiente, y la renta (alquiler) será computada de forma prorrateada entre cada una de las suscribientes del contrato. No podrá considerarse que se comparte la vivienda cuando las personas solicitantes estén unidas por relación familiar (hasta segundo grado) o afectiva. En el caso de los subarriendos, el contrato deberá recoger, de forma expresa, la conformidad de la persona titular de la vivienda, además de los datos de la subarrendadora.

La subvención se tramitará y otorgará de conformidad con las condiciones establecidas en las presentes bases, y será destinada al pago del alquiler imputable a la persona beneficiaria durante un mínimo de doce meses, y siempre y cuando dichas condiciones se mantengan durante este periodo de tiempo.

A efectos de lo dispuesto en esta normativa, quedan excluidos del concepto de alquiler o cantidad subvencionable, los correspondientes a garajes y gastos de comunidad y administración, así como los que se produzcan en concepto de contribuciones y arbitrios, aun cuando figuren expresamente incluidos en el correspondiente contrato.

Quienes soliciten las presentes ayudas municipales no podrán obtener las mismas si reciben una ayuda similar de otras instituciones, en concepto de ayuda al arrendamiento. Por lo que estas ayudas son expresamente incompatibles con otras para el mismo objeto.

*Artículo 2. Órgano competente.*

El órgano competente para la resolución de las ayudas es la Alcaldía, que podrá delegar esa competencia en la Junta de Gobierno Local en la forma que señale la legislación aplicable.

*Artículo 3. Normativa aplicable.*

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Además de lo establecido en estas bases, esta subvención será regulada por:

— Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre.

— Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

— Ordenanza general de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Andoain.

— Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Andoain.

*Artículo 4. Personas beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes Bases, las personas o unidades convivenciales que, a la fecha de publicación de las respectivas convocatorias en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y durante el periodo subvencionable, cumplan los siguientes requisitos específicos:

EK\CV GAO-I-2020-03699

a) 18 eta 30 urte bitartekoak izatea. Laguntza 31 urte betetzen dituzten hilabetearen aurreko hilera arte aitortuko da.

b) Eskatzaile edo bizikidetza-unitateko kide bakar batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide bada, eta horietan titularkidetasun-ehunekoek ez badute % 50a gainditzen, eta etxebizitzako partaidetzen balioak 75.000,00 euro gainditzen ez baditu.

c) Eskaera egiten duen bizikidetza-unitateko kide guztiek dirulaguntzaren xede den etxebizitzan erroldatu beharko dute kontratua formalizatu ondoren, eta hori egiaztatu beharko dute laguntza jaso aurretik.

Era berean, kontratuaren titular ez diren pertsonak kontratua hasi baino lehen erroldatuta azalduko balira etxebizitzan, kontratuaren titular gisa agertzen direnek pertsona horien erroldan baja emateko eskaera egin beharko dute dirulaguntzaren epearen barruan.

d) Bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonetako bat, gutxienez, Andoainen erroldatuta egon izana, gutxienez 2 urteko antzinatasunarekin, etenik gabe, eskaera aurkezteko unean, edo erroldatuta egon izana egiaztatzea udalerrian gutxienez 2 urtez, etenekin baina 5 urtetan zehar. Azkeneko honi dagokionez, eskabidea aurkeztu baino gutxienez hilabete lehenago egon beharko du erroldatuta.

e) Bizikidetza-unitatearen diru-sarreren muga 9.000,00 euro gordinak baino handiagoa izango da urtean, eta urteko deialdian adierazitakoa baino txikiagoa.

Banandutako edo dibortziatutako pertsonei dagokienez, diru-sarrera konputagarriak murriztu egingo dira konpentsazio-pentsioei edo seme-alaben mantenu-pentsioei dagozkien zenbatekoekin, bai eta zaintzaren titular den ezkontideari erabiltzeko lagatako etxebizitzaren hipoteka-kuoten zati alikuotarekin ere.

f) Diru-sarreren osaerari dagokionez, 15.000,00 €-tik gorako balioa duten ondare higigarri eta/edo higiezinen titularren eskaerak ezetsi egingo dira.

g) Andoaingo Udalarekin zorrik ez izatea. Hala badagokio, eta salbuespen gisa, eskaera onartu ahal izango da, baldin eta, aurkeztu aurretik, ordainketa-plan bat formalizatzen bada udalogasunarekin, eta, gutxienez, lehenengo kuota ordaintzen baldin bada.

h) Onuradunak ez du familia-loturarik izango errentatzailearekin odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arte.

i) Gaztelagun programaren baldintza orokorrak betetzen dituzten eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren egitarau horretan dirulaguntza eskatu izana justifikatu beharko dute.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da betetzen direla 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren eta Andoaingo Dirulaguntzen Ordenantza Arautzailearen 18-29 artikuluetan ezarritako baldintzak.

*5. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.*

1. Laguntzaren xede den etxebizitzak Andoaingo udalerrian egon beharko du, eta dagokion bizigarritasun-lizentzia izan beharko du.

2. Nolanahi ere, etxebizitzak, gutxienez, bizigarritasun-baldintza hauek izan beharko ditu:

a) Erabiltzen den sukaldea, behar bezala hornitutako elektrizitate- edo gas-iturriarekin.

a) Tener una edad de entre 18 y 30 años. La ayuda será reconocida hasta el mes anterior a aquel en que cumplan 31 años.

b) Que ninguna persona solicitante o miembro componente de la Unidad Convivencial posea vivienda alguna de su propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor de las participaciones en vivienda no superen los 75.000,00 euros.

c) Todas las personas que forman parte de la Unidad Convivencial de quien efectúa la solicitud deberán empadronarse en la vivienda objeto de subvención tras la formalización del contrato, cuestión que acreditarán con carácter previo a la percepción de la ayuda.

Asimismo, en caso de que haya personas, no titulares de contrato, empadronadas en la vivienda con fecha anterior al inicio del contrato, quienes figuren como titulares del contrato deberán formular la solicitud de baja del padrón de dichas personas, dentro del periodo de subvención.

d) Que al menos una de las personas integrantes de la unidad convivencial conste haber estado empadronada en el municipio de Andoain, con una antigüedad mínima de 2 años de forma ininterrumpida en el momento de presentar la solicitud, o haber constado empadronada, al menos 2 años, en el municipio a lo largo de 5 años de forma interrumpida. En este último caso deberá estar empadronada, al menos, un mes antes del momento de presentar la solicitud.

e) El límite de ingresos de la Unidad Convivencial será superior a 9.000,00 euros brutos anuales, e inferior a lo reflejado en la convocatoria anual.

En el caso de personas separadas o divorciadas, los ingresos computables se minorarán con los importes correspondientes a pensiones compensatorias o de manutención de hijos e hijas, así como la parte alícuota de las cuotas hipotecarias de la vivienda cedida en uso al cónyuge titular de la custodia.

f) En cuanto a la composición de los ingresos, serán desestimadas las solicitudes de titulares de patrimonio mobiliario y/o inmobiliario con un valor superior a 15.000,00 €.

g) No tener deuda alguna con el Ayuntamiento de Andoain. En su caso, y de manera excepcional, se podrá admitir la solicitud si antes de presentar la misma se formaliza un plan de pago con la Hacienda municipal haciendo efectivo el pago de, al menos, la primera cuota».

h) La persona beneficiaria no tendrá vinculación familiar con la arrendadora hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

i) Las personas solicitantes que cumplan las condiciones generales del programa Gaztelagun deberán justificar haber presentado solicitud de subvención en dicho programa del Gobierno Vasco.

En todo caso, para la consideración de beneficiario/a, habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones establecidas en el artículo 13 de la Ley General 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006, y de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones de Andoain.

*Artículo 5. Requisitos que deberán cumplir las viviendas.*

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el término municipal de Andoain y debe contar con la correspondiente licencia de habitabilidad.

2. En todo caso, la vivienda, deberá contar, al menos, con las siguientes condiciones de habitabilidad:

a) Cocina en uso con fuente de alimentación eléctrica o gas adecuadamente equipada.

EK\CV GAO-I-2020-03699

b) bainugela dutxarekin edo bainuontziarekin.

c) Ur beroaren azpiegitura, bainugelarako eta sukalderako zerbitzuarekin.

d) Indarrean dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin.

e) Iturriko izatea.

f) Ur-zikinen azpiegitura, sare orokorrera isurita.

g) Kalerako aireztapena.

h) Familia-unitateko bi pertsonako logela bat (gehienez ere).

*6. artikulua. Bazterketak.*

Honako baldintza hauek betetzen dituzten eskabideek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

a) Honako etxebizitza hauek:

— Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.

— Hutsik logela eskubidea sortzen duten logelen errentapetzeak.

— Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, lokaletik etxebizitzarako erabilera aldatzeko nahitaezko lizentziarik gabe.

— Bizigune programari atxikitako alokairuko etxebizitzak.

b) Etxebizitzaren errentaren zenbatekoa hilean 750,00 eurotik gorakoa izatea (eranskinak barne).

c) Kontratua urtebetetik beherakoa izatea.

d) Beren izaeragatik eta xedeagatik beste udal-lansail edo erakunde autonomo batzuen egitarauetara bildu behar izatea.

Nolanahi ere, dagokion lansailari edo erakundeari helaraziko zaio eskaera, eta horren berri emango zaio interesdunari.

## II. ESKAERAK

*7. artikulua. Onuradunen betebeharrak.*

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Andoaingo Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailearen 21. artikuluan xedatutakoaz gain, jarraian adierazitakoak onuradunen betebeharrak dira:

— Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

— Eskatzen zaion edo zaien informazio osagarri guztia ematea Andoaingo Udalari.

— Jakinaraztea dirulaguntza emateko aintzat hartutako edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren aldaketa.

— Oinarri hauen 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeko beharrezkoak diren Kudeaketak egitea (c letra).

*8. artikulua. Eskaerak aurkeztea: epea eta modua.*

Laguntza horiek eskuratu nahi dituztenek eskabide bat aurkeztu beharko dute, eredu ofizialaren arabera beteta. Eredu hori eskuragarri jarriko da Andoaingo Udaleko Herritarren Arretarako bulegoetan –Atarian– eta udalaren webgunean, deialdian ezarritako moduan.

1. Agiriak: Eskabideak dagokion deialdian onartzen den eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Urteko deialdiari dagokionez Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratutako deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira eskabideak.

Behin prozedura amaituta, egindako eskaeren eta diru-laguntzen kopuruak aurrekontu-partida agortzen ez badu, Udalak

b) Cuarto de baño con ducha o bañera.

c) Sistema de agua caliente en funcionamiento con servicio al cuarto de baño y cocina.

d) Instalación eléctrica en uso a 220 voltios con su boletín correspondiente.

e) Disponer de agua corriente.

f) Saneamiento con vertido a la red general.

g) Ventilación a la calle.

h) Un dormitorio para cada dos personas (como máximo) de la unidad familiar.

*Artículo 6. Exclusiones.*

No podrán beneficiarse de las ayudas las solicitudes donde se cumplan las siguientes circunstancias:

a) Las siguientes viviendas:

— Las viviendas de protección oficial de promoción pública.

— Los arrendamientos de habitaciones que únicamente generen derecho de habitación.

— Los locales usados como vivienda sin la preceptiva licencia de cambio de uso de local a vivienda.

— Las viviendas en alquiler sujetas al programa Bizigune.

b) Que el importe del alquiler de la vivienda supere la cantidad de 750,00 euros/mes (incluidos anejos).

c) Que la duración del contrato sea inferior a 1 año.

d) Que por su naturaleza y objeto debieran haberse acogido a otros programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.

En todo caso se dará traslado de la solicitud al departamento u organismo correspondiente comunicando tal circunstancia al interesado.

## II. SOLICITUDES

*Artículo 7. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones y el artículo 21 la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Andoain, son obligaciones de las personas beneficiarias:

— Utilizar la subvención para el concreto destino para el que haya sido concedida.

— Aportar al Ayuntamiento de Andoain cuanta información complementaria les sea solicitada.

— Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

— Realizar las gestiones necesarias para cumplir los requisitos establecidos en el artículo 4 de estas bases (letra c).

*Artículo 8. Presentación de solicitudes: plazo y modo.*

Quienes deseen optar a estas ayudas deberán presentar una solicitud cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial que se pondrá a disposición en las oficinas de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Andoain –Ataria– y en la página web municipal, en la forma establecida en la convocatoria.

1. Documentación: Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se apruebe en la convocatoria correspondiente.

2. Plazo de solicitud: Las solicitudes deberán presentarse dentro del plazo establecido en la convocatoria anual en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si una vez finalizado el procedimiento, el número de solicitudes y subvenciones concedidas no agota la partida presu-


EK\CV GAO-I-2020-03699

eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki ahal izango du, edo, komenigarriagoa balitz, epea ekitaldi ekonomikoaren zehar irekita utzi. Azken kasu honetan, behar bezala komunikatuko litzateke udalaren webgunearen bidez.

*9. artikulua. Akatsak zuzentzea.*

Eskabide-orriak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat badu edo osatu gabe baldin badago, hamar eguneko epea emango zaie eskaera egiten dutenei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eskaeran antzemandako akatsak zuzentzeko (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

Emandako epea igaro eta antzemandako akatsak zuzentzen ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, aldez aurretik ebazpena emanda, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

III. DIRULAGUNTZA EMATEA

*10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskaeretan justifikatutako urteko diru-sarrera gordinen arabera ezarritako tarte-sistema batean ezartzen da, eta tarte bakoitzari ehuneko bat esleitzen zaio.

| *Diru-sarrerak* | | *Dirulaguntza* |
|---|---|---|
| *Kopurutik* | *Kopurura* | |
| 9.000,00 | 14.000,00 | Errentaren % 50 |
| 14.000,01 | 17.500,00 | Errentaren % 40 |
| 17.500,01 | 21.500,00 | Errentaren % 30 |
| 21.500,01 | 26.000,00 | Errentaren % 20 |

Dirulaguntzaren zenbatekoa hilean gehienez 250,00 eurokoa izango da eskaera bakoitzeko, gehienez ere 12 hileroko.

Diruz lagun daitekeen zenbatekoari kopurua jartzeko garaian, oinarri hauetako 1. artikuluko bazterketei buruz xedatutakoaren arabera egingo da.

Eman beharreko dirulaguntzen guztizko zenbatekoak dagokion aurrekontu-partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen baldin badu, Udalak aukera hauek izango ditu:

— Haien artean hainbanatzea.

— Aurretik laguntza horiek eskatu edo lortu ez dituzten pertsonei lehentasuna emanez ematea.

— Behin laguntza eskaera berriei % 100 esleituta, aurreko urteetan laguntza lortu dutenei murriztea; kasu horretan, murrizketa gehienez % 25ekoa izango da.

Edonola ere, gehienez ere hiru urtez jaso ahal izango da dirulaguntza.

puestaria el Ayuntamiento podrá abrir un nuevo período de presentación de solicitudes o, si fuera más conveniente, dejar el plazo abierto durante el ejercicio económico. En este último caso, se comunicaría adecuadamente a través de la web municipal.

*Artículo 9. Subsanación de defectos.*

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a quienes efectúen la solicitud un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre).

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se las tendrá por desistidas de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos de la Ley 39/2015 de 1 de octubre.

III. CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 10. Cuantía de las ayudas.*

La cuantía de la subvención se establece en un sistema de tramos establecidos según los ingresos brutos anuales justificados en las solicitudes, adjudicándole a cada tramo un porcentaje.

| *Ingresos* | | *Subvención* |
|---|---|---|
| *Desde* | *Hasta* | |
| 9.000,00 | 14.000,00 | 50 % de la renta |
| 14.000,01 | 17.500,00 | 40 % de la renta |
| 17.500,01 | 21.500,00 | 30 % de la renta |
| 21.500,01 | 26.000,00 | 20 % de la renta |

La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 250,00 euros al mes por cada solicitud para un periodo máximo de 12 mensualidades.

Para la cuantificación de la cantidad subvencionable, se estará a lo dispuesto sobre las exclusiones del artículo 1 de las presentes bases.

En caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento podrá optar por:

— El prorrateo de la misma entre todas ellas.

— Concederlas priorizando a las personas que no hubieran solicitado u obtenido estas ayudas anteriormente.

— Una vez adjudicada la ayuda en el 100 % a las nuevas solicitudes, reducirla a aquellas que en años anteriores la hubieran obtenido; en este caso la reducción será como máximo de 25 %.

En cualquier caso, sólo se podrá percibir durante un máximo de tres años.

EK\CV GAO-I-2020-03699

*11. artikulua. Laguntzen ordainketa.*

Dirulaguntza zatika ordainduko da, hilero, eta hileroko ordainketak zuritu egin beharko dira:

— Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabete eta erdiko epean erabakiko da dirulaguntzak emateko ebazpena.

— Errentapetze-kontratua eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren sinatzen baldin bada, eta betiere dirulaguntzak emateko ebazpena eman baino lehen, etxebizitzaren errentapetze-kontratuaren jatorrizkoa aurkeztu beharko da, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabete naturaleko epean gauzatuta egon beharko du.

— Agiriak elektronikoki erregistratzeko zerbitzuaren bidez entregatuko dira ordainagiriak, seihileko natural bakoitzaren ondorengo lehenengo 15 egunetan. Erregistro horretan sartzeko, bisitatu egoitza elektronikoa www.andoain.eus helbidean.

Dirulaguntza justifikatzeko adierazitako epeak igaro eta aurreko zenbakian aipatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, edo aurkeztutako agiriak dirulaguntzaren xedea behar bezala egiaztatu ez badu, honako ondorio hauek izango ditu, indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste edozeinez gain:

a) Dirulaguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotzi dutenak ezkutatuz.

b) Helburua osorik edo zati batean ez betetzea edo dirulaguntza emateko oinarri izan den jokabidea ez hartzea.

c) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez zuritzea.

d) Egiaztapen- eta kontrol-jarduketei aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, baldin eta horren ondorio baldin bada jasotako funtsei emandako erabilera egiaztatzea ezinezkoa izatea, diruz lagundutako jardueren helburua, errealitatea eta erregulartasuna ezin betetzea, edo helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bat etortzea, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandakoak izanik ere, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.

*12. artikulua. Agiri zurigarriak.*

Gastuak justifikatzeko, errentapetze-kontratuan adierazitako dirukontura egindako sarreraren edo banku-transferentziaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Kontuaren titularrak, dirusarrera egin behar zaion pertsonak, kontratua errentatzaile gisa sinatzen duen bera izan behar du.

Halaber, diru-sarrera egin duen pertsonak dirulaguntza eskatu eta jaso duena izan behar du.

Dirulaguntzaren onuradunek betekizunak bete beharko dituzte diruz lagundu daitekeen aldi osoan, eta Udalak edozein unetan egiaztatu ahal izango du baldintza horiek betetzen dituzten ala ez.

*13. artikulua. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak ez dira bateragarriak izango helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin.

Berariaz baztertzen dira laguntza horien eskatzaile gisa Bizigune Programaren bidez alokatutako etxebizitzaren bat duten gazteak.

*Artículo 11. Abono de las ayudas.*

El abono de la subvención se realizará de manera fraccionada, mensualmente, debiendo justificarse los pagos de las mensualidades correspondientes:

— El primer pago se realizará tras la resolución de la convocatoria. La resolución de concesión de las subvenciones se acordará en un máximo de mes y medio tras la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

— En el caso de que el contrato de alquiler se firme con posterioridad a la finalización del plazo de presentación de solicitudes y siempre antes de la resolución de concesión de las subvenciones, deberá presentarse el original del contrato de arrendamiento de la vivienda, que deberá estar formalizado dentro de 1 mes natural tras la finalización del periodo de presentación de solicitudes.

— La entrega de los justificantes de abono se realizará a través del servicio de registro electrónico de documentos en los 15 primeros días posteriores a cada semestre natural. Para acceder a este registro, visite la sede electrónica en www.andoain.eus.

Transcurrido los plazos señalados para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado anterior, o la presentada no acreditará suficientemente el destino de la subvención, tendrá los siguientes efectos, además de cualquiera otro previsto en la legislación vigente:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.

d) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

*Artículo 12. Documentación justificativa.*

Los gastos se justificarán aportando el justificante del ingreso o transferencia bancaria a la cuenta que se indique en el contrato de arrendamiento. La persona titular de la cuenta, y a la que debe hacerse el ingreso, tiene que ser la misma que firma el contrato en calidad de arrendadora.

Igualmente, la persona que realiza el ingreso, debe ser la que ha solicitado y percibido la subvención.

Las personas beneficiarias de la subvención deberán cumplir los requisitos durante todo el período subvencionable pudiendo el ayuntamiento comprobar, en cualquier momento, dicho cumplimiento.

*Artículo 13. Concurrencia con otras ayudas.*

Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases no serán compatibles con otras ayudas destinadas para el mismo fin.

Se excluye expresamente como demandantes de dichas ayudas a jóvenes que dispongan de una vivienda alquilada a través del Programa Bizigune.

EK\CV GAO-I-2020-03699

Salbuespenak:

Aurreko atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, Andoaingo Udalak gizarte-bazterketako eta premia larriko egoerak arintzeko emandako banakako laguntza ekonomikoen onuradun izan daitezkeen pertsonek ere jaso ahal izango dituzte ordenantza honetan arauturiko laguntza hauek.

Hala balegokie, etxebizitza errentapetzeko laguntza hauek osagarriak izango dira, gehienezko zenbatekora iritsi arte.

Nolanahi ere, dagozkien laguntzak eskatuz baliatu beharko dituzte beren eskubideak. Bestela, ezingo dute jaso oinarri hauetan ezarritako errentapetze-laguntza osagarria.

*14. artikulua. Finantzaketa.*

Etxebizitzak errentapetzeko dirulaguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak Andoaingo Udalaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-kredituetatik aterako dira.

Udalak dagokion dirukontua izango du aurtrekontuetan laguntzak emateko, eta horiek ez dute gaindituko Andoaingo Udalak horretarako dirukontuan jarritako kopurua.

IV. PROZEDURA

*15. artikulua. Balorazio irizpideak.*

Laguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri hauetan ezarritakoak dira.

Baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatuta, laguntzak ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera emango dira.

Eman beharreko dirulaguntzen guztizko zenbatekoak dagokion aurrekontu-partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, Udalak diru-partida hori hainbanatu ahal izango du aurkezturiko eskabide guztien artean.

*16. artikulua. Prozedura.*

a) Bideratzea eta proposamena.

1. Gizarte Zerbitzuen Lansailari dagokio ordenantza honetan aurreikusitako laguntza-espedienteen izapidetze-lanak egitea. Zerbitzu tekniko eskudunek aztertu eta ebaluatuko dituzte eskabideak, eta aldez aurretik ebazpen-proposamen bat egingo dute, zeina Alkatetzaren esku jarriko duten horrek esleipenaren behin-behineko ebazpena eman dezan.

2. Behin-behineko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Andoaingo Udalaren iragarki-taularen eta web-orriaren bidez, eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

3. Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, hala badagokio, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da. Bertan, dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzaileen zerrenda eta zenbatekoa adieraziko dira.

Behin betiko ebazpen-proposamenean, alegazioak onesteko edo ezesteko arrazoiak azaldu beharko dira, hala badagokio, behin-behineko ebazpenarekiko desberdintasunak garbi utzi eta behar beste zuritu ahal izateko. Baldintzak bete dituzten eskabide guztien artean emango da diru-laguntza.

b) Ebazpena.

1. Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Alkatetzak arrazoitutako ebazpen bidez ebatziko du prozedura, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta prozeduran egiaztaturik utzi beharko dira ebazpenaren oinarriak.

2. Ebazpenean berariaz jasoko da gainerako eskabideak ezetsi egin direla, hala badagokio.

Excepciones:

Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, las personas que puedan ser beneficiarias de ayudas económicas individuales otorgadas por el Ayuntamiento de Andoain, para paliar situaciones de exclusión social y extrema necesidad, podrán también beneficiarse de estas ayudas.

En este caso, las presentes ayudas para el alquiler tendrán carácter complementario hasta alcanzar la cuantía máxima.

En todo caso, tendrán que hacer valer sus derechos solicitando las ayudas correspondientes. De lo contrario, no podrán recibir la ayuda complementaria de alquiler establecidas en las presentes bases.

*Artículo 14. Financiación.*

Los recursos económicos destinados para financiar las ayudas para el alquiler procederán de los correspondientes créditos presupuestarios consignados al efecto en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Andoain.

El Ayuntamiento dispondrá la partida correspondiente con el objeto de conceder las ayudas, y las mismas no sobrepasarán la partida destinada a ello por el Ayuntamiento de Andoain.

IV. PROCEDIMIENTO

*Artículo 15. Criterios de valoración.*

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas son los establecidos en las presentes Bases.

Comprobado el cumplimiento de las condiciones y requisitos, se concederán las ayudas, en las condiciones establecidas en la presente ordenanza.

En el caso de que el importe total de las subvenciones a conceder supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, el Ayuntamiento podrá proceder al prorrateo de la misma entre todas las solicitudes.

*Artículo 16. Procedimiento.*

a) Instrucción y propuesta.

1. Corresponderá al Departamento de Servicios Sociales la realización de las labores de instrucción de los expedientes de ayudas previstas en la presente Ordenanza. Las solicitudes serán estudiadas y evaluadas por los servicios técnicos competentes, quienes realizarán una propuesta de resolución previa que elevarán a la Alcaldía afin de que se dicte una resolución provisional de adjudicación.

2. La resolución provisional se notificará a las personas interesadas, a través del tablón de anuncios y la página web del Ayuntamiento de Andoain, concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones.

3. Examinadas las alegaciones, en su caso, presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía.

La propuesta de resolución definitiva deberá incluir la explicación de las causas por las que se estiman o desestiman las alegaciones a fin de justificar, en su caso, las diferencias con la resolución provisional. La subvención se concederá entre todas las solicitudes que hayan cumplido las condiciones.

b) Resolución.

1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso del resto de las solicitudes.

EK\CV GAO-I-2020-03699

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik aurrera. Adierazitako epean ebazpenik ematen ez bada, horrek bat ekarriko du aurkeztutako eskaera ezestea.

4. Ebazpenean, dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua jasoko dira.

V. DIRULAGUNTZAREN KONTROLA

*17. artikulua.*

Andoaingo Udalak egokitzat jotzen dituen agiri guztiak aurkezteko eskatu ahal izango die onuradunei.

Udal Zerbitzuek Udalaren datu-baseetara jo ahal izango dute eta horiek ikuskatu eta kontsultatu, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

Laguntzak jasotzen dituztenek Andoaingo Udalak fiskalizazio-zereginak betetzeko eskatzen dien informazio guzti-guztia emango dute.

VI. PUBLIZITATEA

*18. artikulua.*

Aintzat izanik azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluan, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluan eta abenduaren 9ko 19/2013 Legeko 8. artikuluan ezarritakoa, ordenantza honen arabera emandako laguntzak udal iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, bai eta gardentasuna eta informazio publikorako sarbidea bermatzeko ezarritako gainerako tresna eta bitartekoetan ere. Nolanahi ere, datu pertsonalak babesteko legean xedatutakoa errespetatuko da, eta, beraz, datu horiek bereizita eskainiko dira.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

*19. artikulua.*

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza dirulaguntza emateaz arduratzen den organoak ebatziko du, dagokion Batzorde Irizpenemaileak irizpena eman ondoren.

VII. HELEGITEAK

*20. artikulua. Helegiteak.*

Dirulaguntzak emateari buruzko behin betiko ebazpenaren aurka berraztertzeko helegitea aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontaturik.

*Lehenengo xedapen gehigarria. Indarraldia.*

Araudi hau indarrean izango da berau aldatu eta indargabetu bitartean.

*Bigarren xedapen gehigarria. Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

Datu pertsonalak Andoaingo Udalaren ardurapeko datu-tratamendu batean sartuko dira (Goikoplaza z/g - Andoain), eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta erabileraren aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, Udalari zuzendutako idatzia aurkeztuz.

Zure datu pertsonalak dirulaguntzen deialdia kudeatzeko eta ebazteko erabiliko dira, deialdiaren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskabidean oinarrituta.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de seis meses desde el día en que se publique la convocatoria. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

V. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN

*Artículo 17.*

El Ayuntamiento de Andoain podrá requerir a las personas beneficiarias la presentación de cuantos documentos se consideren oportunos.

Los Servicios Municipales podrán acudir e inspeccionar, así como consultar las bases de datos municipales con la única finalidad de comprobar el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases.

Quienes reciban las ayudas facilitarán cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Andoain en el ejercicio de sus funciones de fiscalización.

VI. PUBLICIDAD

*Artículo 18.*

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, el artículo 30 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y el art. 8 de la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, las ayudas concedidas conforme a la presente Ordenanza se publicarán en el tablón municipal de anuncios y en la página web del Ayuntamiento, así como en los instrumentos establecidos al efecto para garantizar la transparencia y el acceso a la información pública. En todo caso, se respetará lo dispuesto en la ley de protección de datos de carácter personal, por lo que tales datos se ofrecerán de forma disociada.

VI. INTERPRETACIÓN DE LAS BASES

*Artículo 19.*

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas bases, será resuelta por el órgano encargado de conceder la subvención previo dictamen de la Comisión Informativa correspondiente.

VII. RECURSOS

*Artículo 20. Recursos.*

La resolución definitiva de la concesión de las subvenciones podrá ser objeto de recurso de reposición ante el órgano que dictó la misma en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

*Disposición adicional primera. Vigencia.*

La presente normativa se mantendrá vigente hasta su modificación o derogación.

*Disposición adicional segunda. Protección de datos de carácter personal.*

Los datos personales serán incluidos en un tratamiento de datos cuyo responsable es el Ayuntamiento de Andoain (Goikoplaza z/g - Andoain) y ante la cual podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, enviando un escrito dirigido a la misma.

Sus datos personales serán tratados con la finalidad de gestión y resolución de la convocatoria de subvenciones, basado en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella.

EK\CV GAO-I-2020-03699

Eskatzaileei buruzko datuak zerga-administrazioari, fiskalizazio-organoei, kontabilitate-kontrolari eta banku-erakundeei jakinaraz dakizkieke, ordainketak kudeatzeko. Era berean, beste hirugarren batzuei jakinaraziko zaizkie lege-mailako arauetan jasotako balizkoetan.

Dirulaguntza emateko jardunbide amaitu eta egin daitezkeen erreklamazioak izapidetzen diren bitartean gordeko dira datu pertsonalak.

Datu pertsonalen erabilerari eta jabearen eskubideak baliatzeari buruzko kontuei dagokienez, helbide honetan jar litezke erasandakoak harremanetan: ataria@Andoain.eus.

*Azken xedapena.*

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren indarrean dagoen araudiaren arabera.

*Eginbidea:* Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Ordenantza hau Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2020/05/28an egindako bilkuran hartutako erabaki bidez.

Los datos relativos a las personas solicitantes podrían ser comunicados a la administración tributaria, a órganos de fiscalización, para el control contable y a entidades bancarias para gestionar los abonos. Igualmente, se comunicarán a otros terceros en supuestos contemplados en normas de rango de ley.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede ponerse en contacto en esta dirección: ataria@Andoain.eus.

*Disposición final.*

La presente ordenanza entrará en vigor tras su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de acuerdo con la normativa vigente.

*Diligencia:* Que la extiendo yo, el Secretario Acctal. de la Corporación, para hacer constar que la presente Ordenanza ha sido aprobado mediante acuerdo del Pleno Municipal, de fecha 28/05/2020.

EK\CV GAO-I-2020-03699